

Iñaki Goenaga Alberdi

Liburu hau kaleratzen denerako ehun urte beteak izango ditu Iñakik. Abenduan ari naiz idazten lerro hauek eta datorren urteko urtarrilaren 11n ospatuko du mende osoko mundualdia. Ez da erraza ezer aurkitzea Iñaki Goenagari buruz inon. Eta aurkitzen dena ez da dena zuzena. Hitzaurre honek argituko ahal ditu hari buruzko uste oker batzuk, eta argia egingo ahal du haren biografian.

Azpeitian, Loiola ondoko Ormaetxe baserrian jaio zen, 1905ean, Iñaki Goenaga Alberdi "euskal idazle yaukal urduria" aita Santi Onaindiak deskribatzen duen bezala. Lehen ikasketak sorterrian egin zituen, Olazko Ama Birjinaren ermitatxoan. Herri hartako Maristetan ere ikasi omen zuen hainbat urtez, baina batxilergoa Xabierko jesuiten ikastetxean egin zuen. Bertan Orixe izan zuen irakasle, gerora beti estimu handitan izango zuen euskal idazle eta itzultzailea: "Orixe izan da eta izango da niretzako idazlerik onena" aurten bertan aitortu die Iñakik berak Oihana Elduaian eta Kepa Urbietta *Uztarri* Azpeitiko herri aldizkariko kazetari gazteei.

1921ean Loiolan sartu zen, eta hango nobiziadoan ezagutu zituen Andima Ibiñagabeitia, Iokin Zaitegi, Lauaxeta, Plazido Mujika eta abar. Han osatu zuten erdi agerian erdi ezkutuka beste kideko batzuekin batera nolabaiteko euskal talde bat euskara lantzeko, beren artean Euskal Akademia deitzen zutena. 1923an egin zituen josu lagun izateko behar diren aurreneko botoak.

Talde hartan ibilitakoak oso bide ezberdinak jarraitu zituzten. Ezagunak dira aipatu berri ditugun lau horienak, laurak ere euskarari estu asko lotuak, baina izan ziren izen gehiago, Iñakiren anaia Joxe bera, Frantzisko Sarobe, Patxi Korta eta Peli anaia, Erraimun Argarate, Sagastume, Lasa, Guillermo Larrañaga. 1936ko gerra aurretik denak euskaltzaleak, euskara lantzen idazten eta itzultzen ibilitakoak. Gerrak hondatu eta puskatu zuen taldea, ordea. Lauaxeta fusilatua, batzuk kartzelan eta exilioan, eta beste batzuk Franco pean, alde edo kontra, euskal lanetan murgilduta, Larrañaga eta Mujika bezala, baina beste batzuk beren euskal lanak ukatu zituzten, Sarobek esaterako edo Korta anaietako batek. Horietako hainbaten lanak argitara eman zituen Iokin Zaitegik *Euzko Gogoa* aldizkarian, eta badirudi haserrea ere piztu zuela horietakoren batengan. Loiolako garai hori hobeto ezagutu nahi duenak Iñakik berak luze kontatu zion Pako Suduperi eta honek ohi duen modu gustagarrian argitaratu zuen *Andimaren Idazlan hautatuak* (Elkarlanean, 1999) izeneko liburuaren hitzaurrean. Dударik gabe, mereziko luke talde honek azterlan eta jarraitze hoberik.

1927an, Oñan zen Iñaki Filosofia ikasten. Hiru urte egin zituen han. Eta handik aukeran jarri zioten, Madrilera soldaduska egitera joan ala bidaltzen zuten tokira Maisutza egitera, gehienetan Hego Ameriketara. Iñakik bigarren aukeraren alde egin zuen Andimak bezala. Iñaki Caracasera bidali zuten, eta Andima Bogotara. 1929. urtea zen.

Caracasen hiru urte egin zituen Iñakik, eta, 1932an, Belgikako Marneffera joan zen Teologia egitera. Han bildu ziren atzera Zaitegi, Ibiñagabeitia eta Goenaga adiskideak. Hiru adiskide haietatik Zaitegi baizik ez zen jesuita bilakatu. 1935ean, apirilean utzi zion Ibiñagabeitiak apaiz bideari, eta urte hartan bertan zertxobait lehenago Goenagak, Teologiako bigarren urteari ekiteko zegoela. "Nik ikusten nian zer lanak egin beharko nituen apaizturik, eta neure burua ez nian horretarako gai ikusten. Urteak aurrera, gero eta apaiz eginago, moztu beharra nian".

Handik laster Aitzolek deitu zion nonbait kazetari lanetan laguntzeko.

Ez da huskeria datu hori gaur argitaratzen dugun itzulpenari dagokionez behintzat. Izan ere *Wilhelm Tell* hau Aitzolek zuzentzen zuen *Yakintza* aldizkarian argitaratu zen epeka, 1934an hasi (beraz Iñaki Marneffen josu lagunetarako ikasten ari zela) eta 1935ean amaitu (jesuitetatik irtenda ordurako), zazpi emanalditan. Badirudi, gainera, jesuitak utzi eta gerra etorri bitarteko bi urte doi horietan mitinak ematen ibili zela han eta hemen berehala ikusiko dugun bezala. Ez da beraz huskeria datu hori. Eta nik esango nuke Aitzolek berak animatuta hasiko zela Iñaki liburu hori itzultzen. Besteak beste Aitzolen orduko ibilbidearekin eta xedeekin bat zetorrelako Suitzaren independentzia goraiatzeko duen antzerki abertzale klasiko hau.

Kontua da behintzat mitinez mitin zebilela Iñaki, eta bat-batean gerrak harrapatu zuela. Eta hamar bat urte lehenago, soldaduskari itzuri egiteagatik, Caracasera joan zena, orain izena emanda ikusten dugu Itxarkundia batailoian. Eta gauzak zer diren, non sortuko Euzko Gudaroztea eta bere ikas garaiko Loiola hartan, jesuitak kanporatuak zirela eta Ormaetxe sortetxearen ondoondoan. Ikustekoa da Iñakik nola gordetzen dituen garai hartako oroitzapenak. *Uztarri* aldizkariari esandakoa da: "Gerra denboran Loiolan egon ginen. Jesuitak bidaliak izan ziren ordurako Frantziara eta Belgikara. Azpeitiko Etxaniz abadea zegoen Loiolaren arduradun. Hark agintzen zuen; meza nagusia noiz izango zen erabakitzen zuen... eta gudari bat hiltzen zigutenean gu joaten ginen kantura. Gazte asko geunden gerragatik han bilduta baina ez geneukan armarik. Guardia zibilen kuartel zaharretik hartutako fusil zaharrak besterik ez; bi tiro bota eta kanoiak gorri-gorri jartzen zitzaizkienak. Baina bagenuen 7 1/2ko kanoi txiki bat eta hura hartuta Mandubi gainera joaten ginen. Beasain aldera begira jarri eta tiro batzuk botatzen genituen; horrela, besteek armak geneuzkala pentsatzen zuten... Handik Orioko mendietara joaten ginen eta han ere gauza bera egiten genuen guk, baina Igeldo aldera oraingoan, han erreketek zeuden eta. Arratsaldean berriro kanoia hartu eta Loiolara itzultzen ginen. Beldurtu egiten ziren Azpeitira etortzen, armak geneuzkala pentsatzen zutelako. Etorri izan balira tiro bat bota gabe hartuko zuten bailara guztia, eta Elgoibarreraino joan beharko genuen".

"Halako batean, indar handiz etorri ziren, eta Elgoibarrera joan behar izan genuen geneukan guztia utzita. Gasolina bidoiak ezkutatu genituen lur azpian; hain zuzen, San Inazioaren estatua dagoen lekutik Hotel Loiolara bitartean. Elgoibarrera heldu ginenean, Lezo zelako batek armak ekarri zituen. Haiekin egin genien aurre, gogor, eta ez ziren handik pasatu. Arrate inguruko mendietan ibili ginen. Komunistak eta sozialistak zaintzen ez ginen batere fidatzen. Traizioak egiten zizkiguten. Ez zuten guk sentitzen genuena sentitzen. Guk gure herria defenditzen genuen, gure etxea. Haiek, batetik eta bestetik, aitzakia ugari ateratzen zuten".

"Behin asturiarrak etorri zitzaizkigun Euskal Herrira laguntza eske, han Oviedo eraso zutelako. Gu ondo osatuta geunden, gure jantziekin eta fusilekin; batailoia ginen. Hala joan ginen Oviedora eta bertakoek errusiarrak ginela pentsatu zuten; izan ere, guk euskaraz egiten genuen eta diziplina handia genuen. Beste batean, trukean, eurak etorri ziren guri laguntzera baina hori itxura! Eskaleak ematen zuten. Guk gure kapilauak geneuzkan eta sotanarekin ibiltzen ziren; baita abadeak ere. Asturiarrek haiek ikustean, 'aiba, curas!' oihukatu eta bi edo hiru hil zituzten. Gu segituan bildu, eta epaiketa, *sumarísimo* egin genien. Kapitainak nor izan zen galdetu eta bertan hil zituen, 'aquí no se mata a nadie' esanez...".

"Itxarkundia batailoia Hondarribian zegoela norbait nire bila zebilela esan zidaten. Aita Olabide zen [ordurako Itun Berria eta, besteak beste, *Kempisa* itzuliak zituena eta *Giza-soña* idatzita, josu laguna bera ere], gaztetan gure irakaslea izandakoa. Liburu bat eginga zuela eta ibaiaren beste aldera pasatu nahi zuela esan zidan. Beste aldean baten bat zain egongo zela zioen. Liburu bat argitaratu nahi zuen, eta horretarako folio sorta hori beste aldera pasatu behar zuen. Orduan italiarren menpe geunden. Halako batean topatu nuen gizon bat, eta hura egingo ote zidan eskatu nion. Oso zaila zela esan zidan, ezetz. Nik konbentzitzeko 'lagunak ez al gara ba?' eta horrelako batzuk esan nizkion, 'elkarri lagundu behar' geniola... Azkenean konbentzitu egin nuen, eta halaxe pasatu zuen".

"Ni Itxarkundiako batailoian nengoela, eskutitz bat iritsi zitzaidan, Bilbora joateko esanez. Handik Donibane Lohitzunera joan ginen, eta handik Parisera, kongresu antifaxistara. Ni fronteko gudarien ordezkari gisa joan nintzen. Han geundela euskaraz hitz egiten ote nuen galdetu zidaten, eta, jakina, nik baietz. Gerrako gudariei bezala arenga bat botako ote nien eskatu zidaten, euskaraz. Halaxe egin nuen, inork ez zidan ezer ulertu, baina oso tentuz entzun zidaten! Baita txalo pila ederra jo ere! Mitin denetan ez nituen hainbeste txalo jasotzen! Izan ere, ni mitinlaria nintzen, eta ohituta nengoen jendaurrean hitz egitera. Egunean hiru mitin ere emandakoa naiz. Kongresuan, besteak beste Juan Luis Kareaga (Ingalaterran bizi zen bizkaitar jeltzale bat), Apaolaza (donostiar bat) eta Onaindiarekin (honekin bildu nintzen bigarren aldia zen) topo egin nuen".

Iñakiren hitz hauek entzunda, aurreneko gauza bururatu zitzaidan aita Alberto Onaindiaren oroitzapen liburura joatea pasarte horren informazio bila. *Hombre de paz en la guerra. Capítulos de mi vida* du izenburua Onaindiaren liburu horrek, eta Ekin argitaletxeak atera zuen 1973an. Honela dio: "Por fin, a mediados de diciembre [de 1936] tuve que visitar, en efecto, la capital francesa. Se iba a celebrar un Congreso Mundial de Juventudes Democráticas, organizado por el *Rassemblement Universel pour la Paix*. Asistirían varios jóvenes vascos, casi todos ellos vendrían de las trincheras para participar en este congreso. Se me pidió e instó que procurara pilotar al inexperto grupo juvenil, cuando yo me sentía más incapaz que todos ellos. ¿Qué días pasamos! Estos jóvenes se hospedaron en el Grand Hôtel, próximo a la Ópera de París. Les habían dicho en Bilbao que fueran a un gran hotel, y al llegar a París pidieron a los taxistas "Grand Hôtel", y en aquel lujoso edificio acabaron por tomar hospedaje. Todo les venía muy grande, los salones, las habitaciones, los comedores. Un joven azpeitiano abandonó aquella residencia de ricos hombres de negocios y se trasladó a un modesto hotelito, cerca de la Bolsa, donde yo había tomado habitación". Gure Iñaki Goenaga izango zen azpeitiar gazte hori, inondik ere. Baina jarrai dezagun Onaindiaren kronika:

"El congreso reunió en unos modestos locales a un grupo de jóvenes no muy claramente definidos. No conocíamos a nadie en aquel ambiente, pero no tardamos en sospechar que la tónica era de sentido marxista y hasta discretamente comunista; eso mismo hizo que nuestros jóvenes se mostraran más cristianos, más creyentes y más hombres de libertad. Sólo una vez penetré en el salón de conferencias, aunque fui yo quien redactó el escrito que el grupo presentó y leyó desde la tribuna pública. Mi principal colaborador fue D. Juan Careaga, ex diputado nacionalista vasco por Bilbao. Hicimos resaltar nuestra condición de demócratas, de cristianos y de patriotas vascos. La lectura del documento recibió una entusiasta acogida. Nuestros muchachos fueron muy respetados".

Iñakik ez zuen ia armarik erabili, Paristik bueltan luma erabili omen zuen guda-oineko berriak *Euzkadi* egunkariari emateko. Askotan lunarik ere ez, berak gogoratzen duenez, telefonoz egiten baitzituen kronikak. Halako batean, 1937ko ekainean Bilbo erori zen, eta Santander aldera jo behar izan zuten Euzko Gudarosteko tropek, Agirre Lehendakariaren atzetik. Abuztuan preso hartu zuten Iñaki, bere kideko gudariekin batera Santoñan. Han hasi zen bost bat urteko nekaldi luzea: Santoñatik Iratxera, handik Lizarrara, hurrena Iruñera, gero, hiru lagun elkarri lotuta, "Kristo bezala", trenean Gasteizera eta azkenik Bilbotik bueltan, Urduñara berehala, jesuiten ikastetxe kartzela bihurtura berriz ere, gauzak zer diren.

Kartzelatik atera eta urte gogorrak etorri zitzaizkion, gero. Herrira joan, Guardia Zibiletara agertu eta herritik ehun kilometrora bidali zuten eta bizibidea non edo handik atera behar. Lizarrara joan zen bizi izatera. 1945ean ezkondu zen Iratxeko espetxealdian ezagutu zuen andre batekin, izatez Utergako.

Hortik aurrerakoa Gerraondoko edozein errepresaliaturen bizitza gogorra eraman zuen Iñakik. Hainbat lekutan bizi izan da, beti ere lan ezberdinak egin izan ditu, baina batez ere errepresentazio lanak, bernizak eta disolbagarriak, altzari fabriketarako, poliesterra berak sartu omen zuen Euskal Herrian. Patrizio Etxeberriarentzat eta Ucinentzat lan egindakoa da. Baita pentsuen errepresentazioak eramandakoa ere.

Inoiz euskalgintzako lanetan aritu bazen ere, baita Zaitegi eta Ibiñagabeitia adiskideen *Euzko Gogoa* ezkutuan partitzen ere, ez zaio Iñakiri gerra ondoko idazlanik ezagutzen. Mutu geratu zen literaturarako. Aita Santi Onaindiak atera zizkion, bai, olerki batzuk *Mila Euskal Olerki Eder* bilduma trinkoan, edo haur ipuin batzuk ere bai *Jolasketa* izeneko liburuan, baina gerra aurrekoak dira inondik ere, 20ko urteetan Bilboko *Jesus'en Biotzaren Deyan* argitaratutakoak. Izan ere, eta, Iñakik berak aitortu didanez, jesuiten aldizkari hori berak bakarrik eraman omen zuen aurrera 20ko urteetan. Eta han bilatu beharko ditu Iñaki Goenagaren idazlanak aurkitu nahi dituenak. Han eta *Zeruko Argian*. Onaindiaren *Jolasketa* liburuan lau haur ipuin hauek ageri dira: "Eguzki izan nai", "Urrezko larrosondoa", "Iru tximiñuak" eta "Ostropeko sagarra". "Sistiya" izenordea erabili zuen gehien bat Goenagak idazlan horiek izenpetzeko; baina baita beste hauek ere: "Ormaetx" eta "IdeO" (Iñaki de Ormaetxe). Hainbat lekutan egozten zaizkio beste izenordeko batzuk, baina Iñakiri berari galdetuta, niri aitortu dizkidanak horiek dira. Beste leku batzuetan, 1932an *Antzerti* aldizkarian argitaratutako *Zenbatean sagarrak?* antzerkiko egile edo itzultzailetzat jotzen dute. Antzerki horrek, ordea, badu bere egilea eta bere itzultzailea eta ez da Iñaki Goenaga.

Gure edizio honetan, *Yakintza* aldizkarian argitaratutako bertsioa ematen ahalegindu naiz eginahalean, oso gauza gutxi aldatuta. Akats nabarmenak zirenak ez ezik, hona ukitu diren gauzak:

–Izen propioen ondoko apostrofoak kendu ditut ia erabat: Yon'ek > Yonek. Toponimoak zirenean, marratxoaz ordezkatu ditut: Aldorft-en.

–/r/ gandordunak /rr/ bikoitz bihurtu ditut. Gauza bera /l/ eta /t/ hizkiekin.

–Hitz elkarketetako marrak eta puntuazioa nahikoa ukitu ditut, gaurko ohiturei jarraituz, eta beti ere argitasunaren mesedetan.

–/s/-/z/ hizkien nahasketa zuzentzen ahalegindu naiz: aztun > astun, azke > aske; azkatasun > askatasun; azkatu > askatu eta abar.

–/y/ grekoa erabiltzen du erabat /j/-ren ordeaz. Nik gaurko ohiturei jarraitu diot eta /j/ jarri dut. Yaurleri > jaurleri; yarri > jarri eta abar.

Inazio Mujika Iraola

2004ko abenduan